

Ejerzitoaren jeep baten bozgorailuetatik entzun zitekeen hizkuntza arrotz batean mezua: guztiz debekatua zegoen etxetik ateratzea, ejerzitoak astean banatuko zituen etxe gobernuak zehaztutako jaki eta lehengaien poltsak. Kalean aurkitutako edozein gizabanako atxilotu eta justizia militarren esanen arabera epaitua izango zen.

COVID19 birusa zela eta hemezortzi hilabete zeramatzan biztanleriak etxean sartuta egotera behartuta. Hasierako neurriak gogortzen joan ziren poliki poliki, eta gizabanakoen askatasunak gero eta murrizagoak ziren.

Itxialdia luzatu ahala zurrumurrak zabaltzen hasiak ziren. Jatorrizko birusak eragindako neurrien aterpearen babesean gobernuak neurritz kanpoko kontrol sozialerako neurriak inposatzen hasi ote ziren. Gizateriaren sumisio puntua neurtu nahian.

Zurrumuru hauek estatu eta ongizate orokorraren kontrakoaren zirenaren aitzakian, gobernuak komunikazio kanal guztien kontrola hartu eta adimen artifiziala erabilia biztanleriaren komunikazio guztiak aztertzeari ekin zion.

Azterketa hauek hasi ondoren ahots kritikoak desagertzen hasi ziren: COVID19ak eragindako neumonia kasuak, poliziak atxilotuak... Kasu hauek biztanleria bitan banatu zuten, alde batetik azpijokoren bat gertatzen ari zela susmatzen zutenak, eta beste alde batetik egoera hau guztiz sentzuzkoa eta gobernuak guztion hobebharreko ezarria zegoela sinesten zutenak. Komunikazio kanalen kontrola zela eta, sektore kritikoa inkomunikatuta zegoen.

Egoera honetan, erresistentzia sare bat antolatzen hasi zen telekomunikazio ingeniari eta informatika ingeniarien artean. Erresistentzia talde honen lehen egitekoa, antolatzen ari zen erresistentzia orokorrari gobernuaren kontrolari ihes egingo dion komunikazioa sare alternatibo bat eskaintzea izan zen.